

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DULANTZIKO UDALA

Zabor bilketa, ur hornidura eta estolderia eta arazketa zerbitzuengatik 2020ko laugarren hiruhilekoan ordaindu beharreko tasa kobratzea

Nik, Joseba Koldo Garitagoitia Odriak, Dulantziko (Araba) alkate naizen honek,

Jakinarazten dut: 2021eko otsailaren 1etik martxoaren 30era arteko egun baliodunetan (biak barne) ordaindu ahal izango dira borondatezko epean 2020ko laugarren hiruhilekoari dagozkion ondoko ordainagiriak:

Zabor biltzeko zerbitzuaren tasa.

Ur horniduraren tasa.

Estolderia eta arazketaren tasa.

Ordainketa helbideratuta eduki ezean, borondatezko epean banku bulegoetara joanez egin ahal izango da ordainketa, hain zuzen, etxean jasoko den kobrantza abisuan aipatzen diren bulegoetan.

Era berean, zergadunei jakinarazten zaie ordainketa banketxe eta aurrezki kutxen bidez helbideratu ahal dutela, hala xedatzen baitu dirubilketaren arautegiak.

Ordaintzeko adierazi den epea bukatutakoan, ordaindu ez dutenei premiamenduko bete-arazte bidez kobratuko zaizkie ordainagiriak, ehuneko 5eko errekarquarekin, halaxe xedatzen baitu lehentxeago aipatutako arautegiak 96. artikuluan.

Dulantzi, 2021eko otsailaren 1a

Alkatea

JOSEBA KOLDO GARITAGOITIA ODRIA